

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Altxor txiki bat



Xabier Etxaniz Erle

2005ean kaleratu zen lehen aldiz, Erein etxean, Patxi Zubizarretak eta konpainiak egindako liburu hau. Hainbat urtez agortuta egon ondoren Elkar argitaletxearen eskutik plazaratu berri da eta irakurleen esku jarri obra guztiz interesgarri eta gomendagarri hau.

Liburura hurbiltzen denak berehala ikusiko du obra bitxia dela. Bildumetatik at, azal gogorrez, 2 CD barruan, eta Jokin Mitxelenaren irudi ugariz hornitua. Baina berehala antzeman daitezke ezaugarri edo paratestu horiez gain testuan pieza solteak agertzen direla tartekatuta. Eta horixe da, hain zuzen, liburu honen egitura. Istorio baten barruan hainbat herri kanta, ipuin, ateraldi... osotasun bat lortuz.

Kattalin, Nikolas eta Madalen Graziosenera joan dira gurasoeekin Eguberriak pasatzera, han aitonaarekin elkartzen dira eta honek inguruak erakusten dizkie, eta asto gaineen dagoela aprobetxatuz *Aita-semeak asto gainea* ipuina kontatuko die; geroago amona agertzean bilobak besarkatu eta bakoitzari kanta bat abestuko dio: *Kattalin txiki-txiki*, *San Nikolas txikia* eta *Andre Madalen*. Bilobak jolasten ibiliko dira, eta bizi duten egoera edo unearen arabera ipuin bat, kanta bat, istorio edo ateraldi bat kontatuko diete. Beraiei bakarrik ez; liburuarekin batera dauden CDetan horietako asko eta asko grabatuta baitaude eta aukera dago horiek entzuteko euskal artista ezagunen eskutik (Mari Karmen Odriozola, Martin Tejeria, Joxe Arratibel,

Urrezko giltza

PATXI ZUBIZARRETA

Ilustrazioak: Jokin Mitxelena.

Musika: Joserra Senperena.

Elkar, 2017. 165 orrialde.

Haurrentzat.



Patxi Zubizarreta Dorronsoro idazlea (Ordizia, 1964).



Jose Ignazio Ansorena...); horietako batzuek, gainera, abestu egiten dituzte liburuiko kantak Olatz Zugasti, Maddi Oihenart, Josune Lopez edo Abendaño ikastolako abesbatzarekin batera. Luxu bat gure belarrientzat, are gehiago horiek guztiek iragana orainera ekartzen digutelako. Horixe baita liburu honen baliorik handienetakoa, euskal tradizioa, folklorea, gaur egungo haurrei modu erakargarri eta atseginean eskaintzea.

Zubizarreta kapaza izan da batzeko kontakizun hari baten barruan *Amona mantangorriren esaerak*, *Zezenak dira kanta* edo *Sendagile gaztea* ipuina, adibidez, bata bestearen ondoren, irakurlea saltoetan jarriz genero, estilo edo tematika aldetik.

Poliki-poliki edo segidan irakur edo dasta daitezkeen altxorra dugu liburu hau, etxean oheratzerakoan edo eskolan, bana-ka edo taldean, baina modu batean nahiz bestean irakurlearen gozamenerako izango da. Eta hala bazan eta ez bazan... ■